

ALKATEAREN ERABAKIA

GAIA: BUZTIN ATE ELKARTEAREKIN 2026KO HITZARMENA SINATZEA

ESPEDIENTEA: 2026MDIR0001

INTERESDUNA: BUZTIÑATE BUZTIGINTZA ELKARTEA (IFK: G75166165)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 1.000 euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du BUZTIÑATE BUZTIGINTZA ELKARTEA-ren alde, 2026. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Tokiko Garapen teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak kontuan hartuta, Idazkari-kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta BUZTIÑATE BUZTIGINTZA ELKARTEA-ren (IFK: G75166165) artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

BIGARRENA.- BUZTIÑATE BUZTIGINTZA ELKARTEA-ri 1.000 euroko dirulaguntza ematea ondorengo egitasmoa(k) antolatzeko:

- Elkarteak 2026 urtean antolatuko dituen jarduerak egiteko erosi behar duen materiala sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren seigarren klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60 ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 1.000 euroko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0400.481.334.54.01 partidari egozte.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026MDIR0001-Alkate erabakia/Resolución (BUZTIÑATE BUZTIGINTZA ELKARTEA)

Digitalki sinatua:



EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA

Alkatea

Data: 2026/04/22 09:59:33